

LAB eta **steilas** sindikatuok, haurreskolak Partzuergoko langileon ordezkartzaren gehiengoa izanik hurrengo eskaera luzatu nahi dizuegu.

Eusko Legebiltzarrean onartutako aurrekontuek ez dute isladatzen ekainaren batean onartutako Legez Besteko proposamena. Honen bitartez, Legebiltzarrak Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza batzordeari eta Hezkuntza Sailari eskatzen zion, ahalik eta eperik laburrean:

“ Haurreskolak Partzuergoko matrikulazio irizpideak familien egoera eta beharretara egokitzea. Besteak beste, kuotak familien diru sarrera eta ordutegiaren arabera egokituz progresibotasunean oinarrituz. Horretarako gaur egun dagoen goiko kuota muga bezala hartuaz, eta orain arteko ordutegi aukeretan, tarteko ordutegia txertatuz.”

Halaber, ekainean, Hezkuntza Batzorde baten bitartez, 2015erako kuotak familien diru sarreraren arabera egokitzeko aukera aztertuko zela aurreratu zen.

Agerian dagoena da, Partzuergoko haurreskoletan familiek jasan behar duten kostea oso altua dela. 0-3 zikloak daukan balio hezigarria kontuan hartuta eta familia eta lana uztartzeko beharrezkoa den zerbitzu on bat eskaintzeko, behar beste diru inbertitu behar dela azpimarratu nahi dugu.

Aurtengo aurrekontuetan hori guztia ez da kontuan hartzen, are gehiago finantziario gehiago aurreikusi beharrean, Haurreskolak Partzuergorako 3 milloiko murrizketa aplikatu da.

Egoera honen aurrean, Haurreskolak Partzuergoko langileek kezka handiz jaso dugu murrizketa hau eta horregatik zuregana zuzentzen gara hurrengo eskaera hau luzatzeko asmoz:

Haurreskolak Partzuergoan kuota ordainketa sistema familien diru sarreraren arabera egokitze prozesua ahalbideratzeko aurtengo aurrekontuetan eman behar diren aldaketak gauzatzea.

Gasteizen, 2015ko otsailaren 13an